

EZ DAKIT ZENBAT URTEREKIN
KONTURATU NINTZEN,
EDO HOBETO ESANDA,
KONTURATUARAZI NINDUTEN

MARITXUA!

EZIN DUZU
GUREKIN
JOLASTU!

ZERGATIK
EZ ZARA
MUTILEKIN
IBILTZEN?

ARRARO
UTSA DA...


EZIN AL
DU BESTEOK
BEZALAKOA
IZAN?"

EZBERDINA NINTZEN

HANDITU HALA, CEROZ
ETA TXIKIAGO SENTITZEN
NINTZEN




EZ NEKIEN NOR NINTZEN,
BAINA NI NEU IZATEAK
MIÑA ZEKARKIDAN



BAKARDADEAN NENGOEN
EROSOEN



BEHIN TELESAIL BATEAN DESFILE **KOLORETSU** BAT ERAKUTSI ZUTEN, JENDEAK ASKEA
ETA ZORIONTSUA ZIRUDIEN



NIK NIRE HERRIA ETA FAMILIA MAITE NITUEN BAINA KAIOLA BATEAN NENGOEN



IRUDI HAI EK IKUSTEAN
GALDETU NION NEURE
BURUARI: NI ERE IZAN AL
NAHITEKE **ZORIONTSU**
ETXETIK URRUN?



ETA URTE GUTXIRA HIRIRA ETORRI NINTZEN BAKAR BAKARRIK



EZ DITUT GURASOAK NIREKIN BAINA BIGARREN **FAMILIA** BAT OSATU DUT



ORAIN EZ NAIZ ERRUDUN SENTITZEN EZBERDINA IZATEGATIK, ANIZTASUNEAN ARI NAIZ IKASTEN **NIRE BURUA** MAITATZEN

